

#polenbila argazki leihaketaren oinarriak

1. PARTE-HARTZAILEAK

Lehiaketan parte hartu ahal izango du nahi duen edonork, haren nazionalitatea edo adina edozein izanda ere. Salbuespena epaimahaiko kideak izango dira.

2. TEMATICA

Gai nagusia Entomologia izango da, "Polinizatzaileak greban" proiektuan jasotako esparruetan: erleak, liztorrak, loreetako euliak, kakalardoak, tximeletak eta sitsak, loreei eta haien polinizazioari lotuak

Argazki-erakusketa ibiltari baten parte izango diren 10 argazki aukeratuko dira (datak eta erakusketa-lekuak aurrerago zehaztu eta jakinaraziko dira).

Astero, argazki irabazlea lortzeko interesgarriak izan daitezkeen tokiei edo ikus daitezkeen animaliei buruzko pista batzuk emango dizkizuegu.

3. LANEN BALDINTZAK

Lanek behar adina irudi-kalitate izan beharko dute. Fitxategiek jpg edo tiff formatua izan beharko dute; alde handienera, gehienez, 1024 pixel izango dituzte eta fitxategiaren gehieneko neurria 4 MBkoa izango da.

Fitxategi bakoitzak jatorrizko metadatuak jaso beharko ditu; hala, aurkezteko unean egileak emandako informazioa egiaztatu ahal izango da.

Argazkiak ezingo dira aldatu elektronikoki edo beste edozein bitartekoren bidez. Dena den, kolore- edo argitasun-zuzenketen moduko doiketa arinak egin ahal izango dira. Ez da onartuko gainjarritako testuak edo anagramak, edo argazki-oinak dituzten argazkiak edo fotomuntaketak.

4. AURKEZPENA

Parte-hartzea doakoa da eta [estekan](#) eskuragarri dagoen formularioaren bidez egin beharko da. Horretarako, behar bezala bete beharko dira eremu hauek:

- Argazkia
- Argazkiaren izenburua
- Argazkiaren lekua eta data
- Egilearen izen-abizenak
- Harremanetarako modua (e-maila eta/edo telefono-zenbakia)

Parte-hartzaile bakoitzak, gehienez, hiru lan aurkeztu ahal izango ditu eta jatorrizkoak eta argitaragabeak izan beharko dute. Gainera, ezingo dute aurretik beste lehiaketa, webgune edo bitarteko digital edo inprimaturen batean aurkeztutakoak izan. Kanpoan geratuko dira 3 lan baino gehiago aurkezten dituzten parte-hartzaileak.

Sare sozialetan #polenbila traolarekin aurkeztutako argazkiak onartuko dira, 3. klausulan aipatutako kalitate-baldintzak betetzen badituzte.

5. ONARTZEKO EPEA

Lanak aurkezteko epea irekita egongo da 2024eko ekainaren 30eko 23:59ak arte (Espainiako penintsulako ordua). Ez da onartuko gerora aurkeztutako lanik.

6. SARIAK

Aukeratutako 10 argazkietarako sari hau egongo da:

- Hori ziurtatzen duen diploma.
- "Polinizatzaileak greban" erakusketa ibiltarian argazkia sartzea
- Oihalezko poltsa, Escaralimania proiektuaren logotipoarekin.
- Mundi-Prentsa eta Sygenta Edizioen "Guía de campo de los polinizadores de España" izenekoaren ale bat.
- Poltsikoko mikroskopio txiki bat.
- Koaderno bat, boligrafoarekin eta ohar itsasorrek, zure oharrak idazteko.

7. EPAINAHAIAREN ERABAKIA ETA SARI-BANAKETA

Entomologia, argazkigintza eta komunikazio arloetako espezialistek osatuko duten epaimahai adituak izango du argazki irabazleak aukeratzeko ardura. Sormena eta kalitate estetikoak, konpositiboa eta teknikoak baloratu eta animalien talde bakoitzeko bi argazki (2 erle edo/eta liztor, 2 loreetako euli, 2 kakalardo, 2 tximeleta eta 2 sits) aukeratuko dituzte. Hori ezinezkoa balitz lehiaketara aurkeztutako argazkien artean talde guztien ordezkariarik ez dagoelako, talde bakoitzaren argazki-kopurua handitu ahal izango litzateke, epaimahaiaren irizpidearen arabera.

Finalisten argazki guztiak kalitate handieneko formatuan eskatuko dira, ondoren behar bezala erabili ahal izateko. Beraz, garrantzitsua da jatorrizko argazkia gordetzea.

Epaimahaiaren erabakia 2024eko uztailaren 15ean ezagutaraziko dute Aranzadi Zientzia Elkartearen sare sozialen eta webgunearen bidez. Irabazleekin haiek emandako kontaktu-bideetatik jarriko dira harremanetan (e-mailez edo telefonoz).

Sari-banaketa erakusketa inauguratuko duen ekitaldi batean egingo da. Data eta lekua epaimahaiaren erabakiarekin batera jakinaraziko dira.

8. LEGEZKO INFORMAZIOA ETA EGILE-ESKUBIDEAK

Lehiaketan parte hartzeak oinarri hauek guztiak eta epaimahaiaren erabaki apelaezina erabat onartzea dakar berekin. Horiek ez betetzeak partaidetza baliogabetzea eta, dagokionean, saria dagoeneko entregatuta badago, hura itzultzea ekarriko du berekin.

Argazki irabazleen egileek haien jabetza intelektualeko eskubideak gordeko dituzte. Hala ere, ARANZADI Zientzia Elkarteari baimena ematen diote erakusketetan, argitalpenetan irabazi-asmorik edo merkataritzako helbururik gabe, lehiaketaren emaitzaren berri emateko bere webguneko, sare sozialetako edo beste informazio-bitarteko batzuetako argitalpenetan erabiltzeko (irudi-kalitate txikiarekin). Betiere, egileak zein diren aipatu beharko da.

Parte-hartzaileek egile bakarrak izatearekin eta hirugarren batzuen eskubideak ez izatearekin eta lehiaketara aurkeztutako lanen gaineko irudi-eskubideekin lotutako erreklamazioak ez jartzearekin lotutako erantzukizuna hartuko dute beren gain. ARANZADI Zientzia Elkarreak ez du bere gain hartuko puntu hori ez betetzeak eragin ditzakeen kalteen gaineko ardura.

Argazki irabazleak Aranzadiren funtsean geratuko dira "Polinizatzaileak greban. #polenbila edizioa - Argazki-lehiaketa" bilduma barruan.

Lehiaketa honetan jasotako datu pertsonal guztiak lehiaketa hau kudeatzeko bakarrik erabiliko dira, eta datuak babesteko legeek xedatutakoa bete beharko da. Gai horrekin lotutako edozein gai lantzeko edo, dagokionean, datuetara sartzeko, datuak zuzentzeko, baliogabetzeko eta datuei aurka egiteko eskubideak erabili ahal izateko interesdunak mezu elektronikoko bidez harremanetan jarri ahal izango du helbide honetatik: artxiboa@aranzadi.eus.

9. PROIEKTUAREN LAGUNTZAILEAK

"Polinizatzaileak greban" proiektua Eroskiren [Zentimo Solidarioen](#) Programari esker finantzatuko da, Worldcooren bidez.